



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Ayuntamiento de Berrioplano  
Berriobeitiko Udala

## GURASOENDAKO EDO LEGEZKO TUTOREENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

2020/538 Abenduaren 17ko ebazpenean aurreikusitako prozedura 2020/2021 ikasturtean zentroan matrikulatuta ez dauden haurrei aplikatuko zaie. Plaza eskatu dezakete:

• 2019,2020an jaiotako haurren gurasoek edo legezko tutoreek eta 2021eko maiatzaren 14ra arte jaiotakoek, biak barne (2021-2022 ikasturtea hasi baino 16 aste lehenago).

Harrera edo adopzio prozesuan dauden haurren kasuan, beharrezkoa den egiaztatzea sartu behar da.

## ESKABIDEAK

### **ESKAERAK JASOTZEKO ETA AURKEZTEKO EPEAK: 2021eko martxoaren 1etik 15era bitarte. (biak barne)**

- ESKAEREN DESKARGA: Berriobeitiko Udalaren web-gunetik <http://www.berrioplano.es>
- ESKAEREN AURKEZPENA: Eskabideak telematikoki entregatuko dira, eta, SALBUESPEN GISA, aurrez aurre.
  - Online: Berriobeitiko Udalaren webgunearen bidez <http://www.berrioplano.es>
  - Aurrez aurrekoa: Berriobeitiko Udaletxean, 9: 00etatik 14: 00etara.

### **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

a) Jaio ez diren haurren kasuetan, erditzeko aurrez ikusitako data egiaztatzen duen mediku-agiria eta adopzio edo harrera prozesuetan, dagokion egiaztatzea ekarri behar da.

b) NANaren, pasaportearen, atzeritarrentzako bizileku-txartelaren edo balio bera duen gurasoen edo legezko tutoreen nortasun agiriaren fotokopia.

c) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera edota egoera akademikoa justifikatzen duten agiriak.

- Lan bizitzaren ziurtagiria, non aurreinskripzio epea bukatzen den egunetik, 30 egun lehenago Gizarte Segurantzaren edo dagokion Mutualitatearen altan egon behar du.
- Lortzeko aukerak: - Telefonoz 901 50 20 50 - Interneten: [www.segsocial.es](http://www.segsocial.es)
- Norberaren konturako langileen lan-egoera egiaztatzeko, dagokion mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren erregimenean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan aurreinskripzioa amaitu aurreko 30 egunetan alta eman dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dira.
- Eskaearak aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiria aurkeztuko dira.
- Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko eszedentzian egonez gero, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan-egoera aktibotzat jotzeko, idatziz zehaztu behar da lanean hasteko aurreikusitako data ez dela 2021eko urriaren 15a baino geroagokoa izango.
- Langabezian egonez gero, enplegu eskatzailearen alta agiria.
- Hala badagokio, familia-unitateko kideen artean ezintasun iraunkorreko edo baliazintasun handiko pentsioa aitortuta duen Gizarte Segurantzako pentsioduna dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Familiaren osaera frogatzeko agiriak:

- Familia-liburuaren fotokopia (aita, ama eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
- Hala badagokio, familia-unitateko edozein kideren % 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sentzoriala egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Familia ugariaren titulua.
- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
- Bereizketa edo dibortzio kasuetan, epai betearazlea edo legalki egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da.
- Guraso bakarreko familia-titulua edo hori eskatu izanaren frogagiri-agiria. Halakorik ezean:
  - Guraso bakarreko familientzako dokumentazio espezifikoak
    - Bikotekide-elkarte egonkorra ez izatearen eta beste pertsona batekin ezkondu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.
    - Pertsona alarguna edo pareko egoera bada: bikotekidearen heriotza-deklarazioa.
    - Guraso-ahala eskusiboa bada: banantze- edo dibortzio-epaia, edo ezkontzaz kanpoko seme-alabengatikoa neurriari buruzko epaia, non egiaztatzen den guraso-ahala beste alderdiari esleitu zaiola edo guraso-ahala kendu zaiola.
    - Herreran adingabeak badaude: familia harreragileentzako harrera osatzen duen ebazpena.
  - Guraso bakarreko egoeran dauden familientzako dokumentazio espezifikoak.

- Gurasoetako batek zaintza eta jagoletza eskusiboa badu: banantze- edo dibortzio-epaia, edo ezkontza kanpoko seme-alabengatik neurri buruzko epaia, zaintza eta jagoletza eskusiboa duela egiaztatzen duena.
- Gurasoetako bat espetxean badago: espetxeratze-egoera justifikatzen duen ebazpen judiziala.
- Seme-alabak dituen gurasoak genero-indarkeria jasan badu, egiaztasun ofiziala (apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 4.2 artikularen eta otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 16.2 artikularen arabera).
- Baliaiezintasun handiaren ziurtagiria, mendekotasun handia aitortzeko ebazpena edo gurasoetako baten % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-mailaren ebazpena.

e) Errenta mailaren frogagiriak.

- Gurasoen edo legezko tutoreen azken errenta aitortpenaren fotokopia. Aitorpena egin beharrik ez badute, beharrezko horretatik salbuetsita daudela frogatzen duen egiaztasun aurkeztu behar dute, Nafarroako Gobernuak sinatua, eta horrekin batera, lan bizitzaren txostena eta familiak 2019. urtean izan dituen diru-sarrerak finkatzeko agiriak. (F-96 inprimakia eta Ogasunak Esquiroz k., 20 bis-en emandako datu fiskalak)

f) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen lantokia Berribeitein dagoela frogatzen duen dokumentua.

- Haurrentzako ikastokia eskatzen den Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiria, eskatzaileak bertan lan egiten duela adierazten duena.
- Zaintza eta jagoletza duen gurasoaren edo legezko tutoreen lantokia egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Etxebizitzaz aldatzean, ikasturtea hasi aurretik etxebizitza berria entregatu edo kontratatu izana egiaztatzen duen edozein agiri baloratu ahal izango da.. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.

g) Sarbide zuzenerako baldintza berezien gaineko agiriak.

- Haurren elbarritasuna kalifikatzen duen ziurtagiria edota haurren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztasun edota profesional batek egindako txostena, dituen ezaugarriengatik hezkuntza laguntzarako berariazko beharra duela dioena.

h) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuen, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu behar da inguruabar hori frogatzeko.

## ZERRENDAK ARGITARATZEA

### **BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEN ARGITARATZEA: 2021eko maiatzaren 10an.**

Onartuen zerrenda eta itxaron zerrenda 012an, Berribeiteko Udalaren webgunean, udaletxeko oholean eta Artika eta Berribeiteko haur-eskoletako iragarki-taulan argitaratuko dira.

### **ERREKLAMAZIOEN AURKEZPENEA: 2021eko maiatzaren 10etik 14ra bitarte.**

Berribeiteko Udaletxean hautaketa batzordeari zuzendutako erreklamazioak jartzeko aukera egongo da, beti ere puntuazioa berrikustearen zergatia aipatuz. **Inolaz ere, hautaketa baremoan puntuazioan eragina duten dokumentuak zuzendu edo konponduko dira.**

### **BEHIN-BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2021eko maiatzaren 24an.**

Behin betiko zerrendak eta bete gabeko plazak, 012an, Berribeiteko Udaletxearen webgunean eta Artika zein Berribeiteko Haur Eskoletako iragarki-taulan argitaratuko dira.

## MATRIKULA

### **MATRIKULAREN GAUZATZEA: 2021eko maiatzaren 24tik 28ra bitarte.**

Lekua: Artika eta Berribeiteko Haur Eskoletan.

Ordutegia: hitzordua hartuta.

Ekarri beharreko dokumentazioa:

- Haurren Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia
- 2020ko Errenta Aitorpena (ekartzeko azken eguna 2021ko ekainaren 30a).
- Banku-erakundearen kontu-zenbakiaren fotokopia, IBAN barne, bertan helbideratuko baitira ordainagiriak, titularrak eta zenbakia berariaz adierazita.
- 100 euro matrikulazio kuota egiaztasun ofiziala.
- Hala badagokio, haurra behar bezala artatzeko beharrezkoa den osasun-informazioa.

Matrikula formalizatzeko, beharrezkoa da haurrak ikasturtea hasteko egunean (2021eko irailaren 3an) 16 aste beteta izatea.

## DATUEN EGIAZTAKETA ETA BEHAKETA

- Ezarritako epean egiten ez diren matrikulen ondorioz, beste esleipen bat egiten da itxarote-zerrendako ordenari jarraituz.
- Eskaturiko egiaztagiria aurkeztu ezean, zero puntu eskuratuko dira dagokion baremo-atalean, datatik at ezingo da dokumentazioa gehitu. Hala ere lan bizitzaren ziurtagiria aurre-inskripzio epean egin baldin badago, 2021eko martxoaren 22a arte aurkezteko epea irekita egonen da.
- Aurkeztutako matrikularen datuetan edo agiritan gezurrik adierazi dela frogatuz gero, dagokion puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako plaza galtzea ekarriko du berekin.
- Hautapen Batzordeak zilegi izanen du edozein unetan ziurtagiri gehiago eskatzea hautapen baremoan puntuazioa duten egoerei buruz.
- Berribeiteko Udala bera arduratuko da erroldak egiaztatzeaz. Ez da beharrezkoa familiek errolda-ziurtagiria aurkeztea.
- Aukerak markatzerakoan kontutan hartuko da:
  - Lehenengo aukera ez badago tokirik, bigarren aukera kontutan hartuko da. Bi aukerak markatutak badaude.
  - Lehenengo aukera errefusatzeko bada, plaza galduko da.
  - Bigarren aukera errefusatzeko bada, lehenengo aukera tokia egon arte barruko itxaron zerrendan mantenduko da.
  - Aukera bakar bat aukeratzen bada, bigarrena ez da kontuan hartuko.
- ESKAERA laguntzen duen GURASOENTZAKO EDO TUTOREENTZAKO INFORMAZIO DOKUMENTUAN akatsen bat egonez gero, 2020/538 abenduaren 17ko ebazpenak 0-3 urte bitarteko Zentruen Onarpen Prozedimenduak dioena nagusituko da.

## OHIZ KANPOKO ONARPEN PROZEDURA

2021eko ekainaren 1etik aurrera, ohiko epean egin ez duten familiek, eskabideak aurkezteko aukera izango dute. Betiere, eskabide berri hauek 0 puntuazioa izango dute, eta dagoen itxaron zerrenda atzean kokatuko dira, eskabide dataren arabera.

## TARIFAK

2021/21eko apirilaren 21eko Foru Aginduan ezarritako tarifak jarriko dira.

Tarifak familia unitatearen kideen Per Kapita Errentaren arabera izango dira. 2021/2022 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ondorengo taulan agertzen direnak izango dira:

a) Familia orokorren kasuan:

Per Kapita Errentaren Atalak		Kuota		
etik	era	Eskolatzea	Jantokia	Orotara
15.000	baino gehiago	183	95	278
12.400,01	15.000	154	95	249
10.700,01	12.400	118	95	213
9.300,01	10.700	89	95	184
7.980,01	9.300	67	84	151
6.650,01	7.980	45	84	129
5.500,01	6.650	39	66	105
4.500,01	5.500	29	58	87
3.350,01	4500	18	56	74
3500	berdin edo gutxiago	5	52	57

b) Guraso bakarrekotasunaren kasuan edo guraso bakarrekotasunaren ekoizpena:

Per Kapita Errentaren Atalak		Kuota		
etik	era	Eskolatzea	Jantokia	Orotara
15.000	baino gehiago	164	84	248
12.400,01	15.000	137	84	221
10.700,01	12.400	105	84	189
9.300,01	10.700	79	84	163
7.980,01	9.300	59	66	125
6.650,01	7.980	39	66	105
5.500,01	6.650	33	52	85
4.500,01	5.500	28	42	70
3.350,01	4500	16	32	48
3500	berdin edo gutxiago	3	25	28

## BAREMOA

A) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa: 20 puntu gehienez ere.

a) Familia orokorrak

Guraso berean bi egoera posible gertatzen badira, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, puntuaziorik handiena duena.

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoen guraso edo tutore bakoitzeko, 10 puntu.
- Lana bilatzen ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko, 5 puntu.

b) Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena, 20 puntu.
- Lana bilatzeko egoeran dagoen gurasoa, 15 puntu.

c) Zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoa, guraso bakarreko familia izan gabe edo guraso bakarreko egoeran.

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena, 20 puntu.
- Lana bilatzeko egoeran dagoen gurasoa, 15 puntu.

B) Familia unitatea, gehieneko puntuazio metagarria: 15 puntu

b.1) Modalitateak:

- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat eskatzen bada (ikastokiaren erreserba sartzen da eta jaiio gabeendako eskaerak barne) 1: 15 puntu.
- Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, 6 urtetik beherako 2 seme-alaba bakoitzeko puntu 1. Kontuan hartuko dira bakarrik aurreinskripzioa bukatzeaz dagoen jaiio direnak.
- Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran, Nafarroako Foru Komunitatean guraso bakarreko familiak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera: 5 puntu.
- Familia ugariak, 5 puntu.
- Familia-unitateko kideren baten desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala % 33koa edo handiagoa duen egoera aitortua: 4 puntu.

C) Familia unitatearen urteko errenta mailak<sup>3</sup>: 15 puntu gehienez ere.

15.000 baino gehiago	1,5
12.400,01 eta 15.000 artean	3
10.700,01 eta 12.400 artean	4,5
9.300,01 eta 10.700 artean	6
7.980,01 eta 9.300 artean	7,5
6.650 eta 7.980 artean	9
5.500,01 eta 6.650 artean	10,5
4.500,01 eta 5.500 artean	12
3.350,01 eta 4.500 artean	13,5
3.350 edo gutxiago	15

<sup>1</sup> Esleitutako puntuazioa galdu egingo da matrikula egiten den unean berresten ez bada.

<sup>2</sup> 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako seme-alabak bakarrik barematuko dira.

<sup>3</sup> Urteko errentaren kalkulua 507, 8810, 8808 eta 529 laukien batura, eta 708, 511, 822 eta 578 laukiak kenduta izango da 2019ko ekitaldiko Nafarroako Foru Komunitatean, edo Estatuko gainerako erkidegoetan dagozkion laukiak.

D) Eraginpeko eremu geografikoa: 20 puntu gehienez ere.

- Berriobeitiko Zendea 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen gutxienez guraso edo legezko tutore baten bizilekua eta seme-alabarena izatea: 20 puntu .
- Aita, ama edo legezko tutorea Berriobeitiko Zendea lan egiteagatik: 8 puntu.
- Aita, ama edo legezko tutorea Berriobeitiko Zendeako Haur Eskolan lan egiteagatik: 5 puntu.

E) Beste irizpide batzuk. Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan:10 puntu, gehienez ere.

F) Puntuazioko berdinketa kasuak ebatzea. Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzeko azken ikastokia eskaintzean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Haur Eskolan anai-arrebak izatea .
- Familia-unitatearen per capita errenta txikiagoa.
- Puntuazioa berdinketan jarraituz gero, aukeraketa batzordeak egindako zozketaren bidez ebatziko da.